

30 MAY. 2026

Isilarazitako emakume zientzialariak gogoan, 70eko AEBra garamatza Etxeberriak

1978 eta 2009. urteen artean saltoka dabil Aitziber Etxeberriaren kontakizuna. Ezkutuan utzitako emakume zientzialarien eta egoera soziopolitikoaren oihartzunak ditu "Chicago" liburuak.



Aitziber Etxeberria, atzo, Donostian. (Jon URBE | FOKU)

XOLE ARAMENDI
DONOSTIA



Aitziber Etxeberriaren (Zarautz, 1973) aurreko liburu "Olivetti"-ko protagonistarekin topo egingo du irakurleak "Chicago" lan berrian. Oraingoan Ingriden amari, Elisari, jarri dio bereziki fokua idazleak.

Ingridek ondoan izango ditu Irene ahizpa eta Dusty laguna, tatuatzailea. Aita hiltzarekin batera konturatuko da protagonista ezer gutxi dakiela amaren heriotzaz. Dolu betean, eta jakin-minak bultzatuta, ikerketa abiatuko du. «Familiak gordetako sekretuak mahai gainean jarriko ditu», aurreratu zuen atzo Ereingo editore Uxue Razquinek. 2009. urtetik atzera egingo du Ingridek, 1975era.

Liburuko pertsonaia garrantzitsu gehienak emakumeak dira. «Elisa Donostiatik Chicagora alde eginda dago; frankismoan, itota, ama eta emaztea zen eta ez zuen aukerarik lana berak nahi bezala aurrera eramateko. Alabari ere etorkizun hobea opa dio. Idealista da, energia nuklearraren erabilera egokiaren aldekoa. AEBko gobernuaren politikaren kontrako talde klandestinoan sartu eta borrokak ekarritako egoera zailak biziko ditu. Zalantza asko izango ditu, arriskua hartzeagatik, familia Donostian izanda», kontatu zuen. Garrantzitsua izan da, bere esanetan, garai hartako Chicago ezagutzea. Arrazakeriak ere badu pisua.

«Emakumeen aldeko aldarrikapena dago», nabarmendu zuen Etxeberriak. «Emakumeok askotan itzalean egon gara bizitza arruntean zein zientzia arloan. Marie Curiez aparte inor ez zela existitu dirudi. Lana oztopatu zaigu, ez zaigu utzi lana egiten eta gutxiago garai haietan, nahiz eta egun ere berdintasunik ez dagoen. Lanean izan zituzten zailtasunak eta zein ezkutuan egon ziren azaldu nahi izan dut», azaldu zuen.

PUBLICIDAD

naiz:irratia

#EntzunHitzejin



PUBLICIDAD

